# Euskararen erabilera Segurako kaleetan

2021EKO MAIATZEKO NEURKETA

Seguran, 2021eko abenduaren 1ean

UEMA
UDALERRI EUSKALDUNEN MANKOMUNITATEA

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA

SEGURAKO UDALA

# UEMAko udalerrietako neurketa

- UEMAko kide denez, kaleko erabilera neurtu da aurten ere Seguran. Guztira **100 udalerri euskaldunetan** egin dira erabileraren neurketak

- 2021ean diagnostikoa egiteko azterketa ugari egitea egokitzen da:
  - UEMAko udalerrietako kale erabileraren neurketa (Segurakoa barne)
  - Euskal Herriko kale erabileraren neurketa
  - Inkesta Soziolinguistikoa
  - Zentsua (Segurakoa barne)

# Abiapuntua: Segurako datuak (1986-2016)









# Neurketa: zer da eta nola egiten da?

- Behaketa bat da: apuntatzen da kalean zer hizkuntzatan ari den jendea. Segurarren erabilera baino gehiago, Segurako kaleetako erabilera da

- Hiztunen ezaugarri batzuk ere biltzen dira, datuak hobeto aztertzeko:
  - Sexua
  - Adina (haurrak, gazteak, heldu gazteak, heldu nagusiak eta adinekoak)
  - Haurren presentzia elkarrizketan

- Seguran beste aldagai bat ere txertatu da neurketan: hitanoaren erabilera

# Metodologia eta lagina Seguran

**3**

Herriko hiru boluntario aritu dira neurketetan:

- Sahatsa Izagirre
- Estitxu Izagirre
- Oihane Montero

**16**

Hamasei orduz behatu dira herriko kaleak, maiatzaren 3an hasita. Astelehenetik larunbatera, arratsaldez; igandeetan, goizez

**3.323**

Segurako kaleetan 1.009 elkarrizketa bildu dituzte, eta horietan 3.323 lagun hizketan.

Akats tartea: %2,8
(%95 konfiantza mailan)

# Zenbat euskara entzun da Seguran?

- Hamarretik bederatzi euskaraz entzun dira Segurako kaleetan (%91)
- 2015eko neurketaren aldean, zertxobait handiagoa da euskararen erabilera






# Zein da joera sexuaren arabera?

- Ez dago alde esanguratsurik: gizonek zerbait gehiago egiten dute euskaraz



# Eta adinaren arabera?

- Ez da lineala: gazteek erabiltzen dute gehien; segidan, haurrak, adinekoak eta heldu nagusiak. Kasu guztietan, bostetik lauk baino gehiagok darabilte



# Eta adinaren arabera?

- Galerarik handiena umeen artean dago (-6,3), eta heldu gazteetan (-5,3)
- Adinekoen artean erabilera handiagoa jaso da (+5,5)



# Zenbat aritzen dira hika?

- Solasaldien %9an erabili da hitanoa; euskarazkoak soilik hartuta, %10ean






# Zenbat aritzen dira hika?

- Azpeitian eta Usurbilen 2016an neurtu zen erabilera. Zein da diferentzia?
  - Orokorrean, Azpeitiaren azpitik eta Usurbilen gainetik dago Seguran hitanoa
  - Euskarazko solasaldiak soilik hartuta, Seguran da apalena hitanoaren erabilera






# Zenbat aritzen dira hika?

- Adinekoek erabiltzen dute hitanoa gehien, alde handiz (%26), eta segidan, gazteek (%11). Hitano gutxien heldu gazteek eta umeek erabiltzen dute



# Zenbat aritzen dira hika?

- Genero arrakala: gizonen %17 aritzen dira hika, eta emakumeen %1



# Euskararen erabilera Segurako kaleetan

2021EKO MAIATZEKO NEURKETA

Seguran, 2021eko abenduaren 1ean

UDALERRI EUSKALDUNEN MANKOMUNITATEA

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA

SEGURAKO UDALA